



BARREN
TOKIKOM

Agur, Napoka Iria

RPS 271/12



ainhoa
fisioterapia

Jausoro plaza, 6 behea
Elgoibar
943 531 953
669 565 745




aldaz
hortz klinikak

RPS233/13
Tel.: 943 366 377

San Bartolome, 22
20870 Elgoibar

fisio&más
Fisioterapia aurreratua eta
Kirol Berregokitzea



Trenbide kalea, 13
943 740 191 / 667 953 626
www.fisio-mas.com

RPS 132/08



federópticos
ikus

RPS 65/07
San Bartolome, 10
Tel.: 943 743 734

Jeku eder
hortz klinika

RPS 171/12
Elena Herrero Lobo

Aita Agirre Enparantza, 5
20870 Elgoibar (Gipuzkoa)
Tel.: 943 530 053

Mari Jose Ruiz Porres
Doktorea



GINEKOLOGOA

R.P.S. 82/15
Madina Radiologia
Toribio Etxeberria 4, 1 - Eibar
Tel.: 943 202 857
mj.ruizporres@gmail.com

RPS 183/12

Uzuri
optika audio

Elgoibar
Tel.: 943 740 359

Deba
Tel.: 943 192 192

NATUR HOUSE
Ainara Iriondo Ansola

GIZA ELUKADURAN ETA
DIETETIKAN DIPLOMATUA



Toribio Etxeberria, 22
Eibar
Tel. 943 106 020
Mug. 677 551 830

RPS 35/16

LETE

JANTZI DENDA

G-Star
Levis
Diesel
Replay
New Balance

LIKIDAZIOA
sozietate aldaketagatik

%50 era arteko
deskontuak

Lacoste
Etiem
Gant
Armani
Aeronautica

San Frantzisko, 36 behea - Elgoibar - 943 744 199 - odriozola-lete@hotmail.com



ETXEBERRIA
EHORZKETA-BEILATOKIA

943 741 327 (24 orduz)
635 756 295
629 635 203

Santa Klara, 16 - Elgoibar
info@funerariaetxeberria.com
www.funerariaetxeberria.com

Kutxak, trasladoak eta koroak.
Norbanakoei eta konpainiei zuzenduriko zerbitzuak.
Erietxe zentruetan zerbitzuak.



MADDI MENDIBIL



“Listo, juan da extranjerixako urtia; ‘seakabo’”

Amaittu da, aizu. Amaittu sirenak, jente-olatuak, kotxe-boziñak, metroko jun-etorriak... bukatu dira liburutegiko ordu lu-ziak, esamin aurreko nerbixuak eta osteko trankilidadia. Atzian lagata aurtengo jente berezixa, marabillosua (eta baita ez horren marabillosua ere), badira hamar bat egun etxia trastez bete nabala. Maletia egitteko momentua gerturutzen juan ahala, tripak bueltaka hasitta nittun. Ez naiz ni batere ona gauzak amaitzen, baterez! Eta hori izan da, justu, barruan euki doten sentsaziua: juan dala. Askok esan die “Madrid beti egongo da hor”, baiña ez da holan, ez; Madrid han egongo da, baiña ez nere Madrid; hori, ja, juan da.

Hala ere, rekuerdua ez dot galduko, horren bildurrik ez daukat! Pasautako egun tormentoso eta mundialak, zure bisittia eta inguruko beste batzuna, hiriko haundi eta txikittasunak... ez dittut errez ahiztuko.

Urtian zihar sarri esan dizut; azken hillabete honetan gure kale, jente, mendi eta euri zaparraden faltia igarri dot, baiña autobusian sartu eta edifizio altu hárek atzian lagatzen hasittakuan... orduantxe konturatu, listo, juan dala extranjerixako urtia, “seakabo!”

Segurutik, kurtsua herritik urruti pasau daben ikasle askok eta askok eukiko dabe sentsazio hau, Haize. Baiña gaur arte behintzat, eguna amaittutakuan beti allegau da gaba eta urte honen amaierakin batera ere etorriko jaku danori beste zeozer... oingoz, udia! Plaia egunak, musika altu eta jente askodun jaixak eta auskalo zer gehixago.



HAIZEA BERISTAIN



“Berriketaldi honi ere amaieria iritsi jakola begittantzen jaku, ezta Maddintza?”

Bai amaittu ere! Akorduan dittut oindiok irailleko agurren tristurak eta etapa berri bat hastiaren poza, hasierako bildurrak eta bildurren pareko ilusua, hogetalau orduan erderaz berba egin biharraren arduria eta “*Quilla, increíble el Eugkera*” entzutian sortzen jakun harrotasuna... zenbat emozio diferente! Zu bezain romantikia ez naizen arren, nik ere igarriko dot gauza batzuen faltia: itsasua, palmerak, chirigotak, auzoko jende zaratosua, domeketako azoka inprobisaua eta ilunabar magikuak, beste hainbat gauzaren artian. Baiña, ez jatzu begittantzen agur esan biharrak ematen diola, zati haundi batian, enkantua esperientziari? Urtebeteko mugiak epe motzian gauza asko bizitzera bideratzen zaittu, eta hori da azken batian hain berezi egitten dabana.

Zure lekua topatzen pasatzen dittuzu lehenengo hillabetiak, eta behin gustua hartutakuan, alde egin bihar... baiña urtebeteko bizilekua lagatziarekin batera, laga dogu guretik bertan eta laga dau beretik gudan.

Ez dakit zuri pasauko jatzun, baiña nik denbora hau kanpuan pasau ondoren herrira bueltau eta bi egunera inoiz juan ez naizenaren sentsaziua euki dot. Errez ohitzen da bat berriz San Bartolome kalia gora eta behera ibiltzera.

Amaierez berbetan hasitta, extranjeroko urte marabillosuaz gain, berriketaldi honi ere amaieria iritsi jakola begittantzen jaku, ezta Maddintza? Hala ere, ikusiko dogu alkar San Bartolome kalia gora eta behera gabizela, Txiki Eguneke erromerixan edo herriko tabernaren bateko komunen bateko kolan! Bittartian... ondo bizi!



1967

Aste honetako erretratu zaharra Juanito Urrestik ekarri du BARREnera. 1967ko erretratua da, eta Aiaastia auzoko Mugertza baserrian aterata dago. Baserriko ataririk aterata dago, eta atzean ikusten dena Sallobente-Ermuaran bailara da. Juanito Urresti bera bizi zen Mugertza baserrian familiakoekin, eta sarri joaten zitzaizkion bere lagunak baserrira, bisitan. Eskolako lagunak dira hauek, eta 13 bat urte izango zituzten. Gogora ditzagun zeintzuk diren argazkian ageri direnak: **Behan:** Jose eta Alfonso Lodoso. **Goiko lerroan:** Antonio Segundo eta Juanito Urresti.



ARGITARATZAILEA:



Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR
943 744 112
Publizitatea: 943 743 704
barren.publi@elgoibarkoizarra.eus
barren@elgoibarkoizarra.eus
www.barren.eus

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarriak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen liritzia, Zozoak Beleari eta eskuittzak aialetan adierazitakoan erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zalaa Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Garazi Ayesta, Nora Hadi, Ibon Serrano, Arkaitz Irureta, Nora Kortaberria, Nerea Gurrutxaga, Andoitz Agirregomezkorta, Abel Arriaga, Inma Mugertza, Ander Izagirre, Ana Alberdi, Eneko Iturbe, Eire Vila, Mikel Olaizola, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansoa, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Paula Heras, Eneiz Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Mujika, Ander Sorraluze, Arantza Etxeberria, Irati Agirreazaldegui, Maddi Mendibil, Haizea Beristain **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.860 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► KIROLA... HORRELA?

Askotan, kirol ezberdinetako zaleen jokabideak konparatu ditugunean, berehala oilaru gara "gurea" defendatuz. Futbola vs. eskubaloia: "Ah, futbolak ez dauka eskubaloiak duen nobleziririk!" "Ah, telebistak kutsatuta dauzka futbolako zaleak!" "Eskubaloiko publikoak errespetuz eta umiltasunez jokatu behar beti!" Beti esan dut whatsappean ez nukeela inoiz hau idatziko, baina orain arau hori hautsiko dut: Ja, ja eta ja! Hasieran harridura, gero haserrea eta azkenean tristura izan da kiroldegiko partida batzuetara joan naizenetan sentitu dudana. Ez beti, bale, baina askotan, batzuei ez zaie gustatuko, baina Elgoibarko kiroldegiko partida batzuetan ematen dugun irudia lotso-garri-da: gurasoak (batzuk, bale), arbitroei familia osoa gogorarazten; gazteak-umeak (batzuk, bale) sugeak eta muskerrak ahotik botatzen; entrenatzaileak (batzuk, bale), deabruak hartuta egongo balira bezala, garraxika eta mehatxuka...Eta giro hori, gaitz endemiko bat bezala, Asterixen liburuetako Detritus Perfectusen zizañaren geruza berde eta kutsakorraren antzera, hedatzen joaten da, arima lasaienak eta zentzudunenak kutsatu arte. Ez dago hori gelditzerik. Gizakiok nekez imitatzen ditugu ekintza psitiboak eta asertiiboak, baina jarrera oldarkorrek eta iraingarriek berehala harrapatzen gaituzte. "Ez dituzu ezagutzen horko eta hango zaleak!"-entzuten dut batzuetan-Askoren mina, tontoen atsegina.

Agian gure zilborrera begira egongo bagina... edo ondokoari ukondokada bat emango bagenio... edo bozgoragailuetatik zentzuzko mezuak entzungo bagenitu... Gerrarako armadura ilunak erantzi! Gure ekipoei positibismoz eta indarrez betetako haize boladak ematea besterik ez dugu egin behar, lagundu nahi badiegu. Energia

ez da sortzen, ez deusezten, soilik eraldatzen, ezta? Ba, eraman dezagun gure energia beste puntara, ziur nago Elgoibarrek eskertuko duela.

A.I.

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARREn edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inizialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inizialekin sinatuta badago.

5. Ez dira onartuko: biraok, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeetara zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gaztelerez datorren eskutitz argitaratuko.

MAIALEN ASTIGARRAGA

Merezi du Elgoibarko Izarrako bazkide izatea, oraindik asko dagoelako egiteko gure herrian euskararen eta kulturgintzaren alde.



Zergatik merezi du Elgoibarko Izarrako bazkide izatea?

Gure Balioak sarirako hautagaiak aurkezteko epea zabaldu du Debegesa Garapen Agentziak

Debabarrenean pertsona edo entitate batek bere ibilbidean zehar sustatu dituen giza balioei aitortza egiteko sortu zuen Debegesa Gure Balioak Saria. Aurten, zortzigarren urtez egingo dute, eta antolatzaileek jakinarazi dute zabaldu dutela dagoeneko Gure Balioak Sarirako hautagaiak proposatzeko epea. Debabarreneko edozein erakunde, enpresa, gizatalde nahiz norbanakok izango dute euren hautagaiak proposatzeko aukera, uztailearen 16ra arte. Hori bai, hautagaiak zenbait baldintza bete behar dituzte: Debabarrenean jaiok izan behar dira edota euren lan-ibilbidea eskualdean garatu dutenak.

Jasotako proposamen guztiak epaimahai batek aztertuko ditu, unibertsitate, enpresa, kultura eta gizarte arloetan diharduten be-

deratzi lagunek osatutako epaimahai batek, eta sari banaketa urrian egingo dute, Mendaron. Saridunak Juan Luis Baroja Collet artistaren eskultura bat jasoko du, sari honetarako bereziki diseinaturakoa.

Sariaren xehetasun guztiak, oinarriak eta hautagaia aurkezteko bete beharreko orria www.debegesa.eus webgunean eskuratu behar da. Orria bete ondoren, balioak@debegesa.eus helbidera bidali behar da. Iaz, Nerea del Campo Aguirre eibartarrak jaso zuen saria, baina saria jaso dutenen artean hainbat elgoibartar ere badadue. Sabin Osoro Unzuetak jaso zuen, esaterako, 2014an, Jesus Bilbao Azpirik, 2012an, eta Gemma Agirregomezkortak jaso zuen haren aurretik, 2011n.

Haizea Elgoibarko Emakume taldekoak Alcorta enpresan izan dira bisitan

Haizea Elgoibarko Emakume Taldeko 25 lagun Alcorta Forging Group enpresan izan dira bisitan aste honetan, haiek gonbidatuta. Iñigo Palominok egin zien harrera, eta Itoitz Gonzalezek eman zizkien enpresaren eta enpresan egiten duten lanaren gaineko azalpenak. Alcortak 100 urte baino gehiagoko historia du, eta enpresa ezagutzera emateko, herriko elkarteei bisita gidatuak egiteko aukera eskaintzen ari dira. Haizeakoak oso gustura gelditu ziren eta euren esker ona agertu diete enpresako arduradunei. "Eskertzen da tailerra barrutik ezagutzeko emandako aukera, egunero ez delako izaten burdinaren forjaketan Europako enpresa garrantzitsuenetako bat dena ezagutzeko aukera", azaldu dute.




Ander Mujikak eta Paula Herasek irabazi dute Ludotekako eta Gaztelekuko logotipo lehiaketa

Elgoibarko Ludotekak eta Gaztelekuk hamargarren urteurrena beteko dutela-eta, udal zerbitzu horietako logotipo berriak aukeratzeko lehiaketa jarri zuen abian Udalak, eta orain jakinarazi dute Ander Mujika Zubiaurren eta Paula Heras Marcosen lanak aukeratu dituztela onenentzat. Ander Mujikak aurkeztutako logotipoa erabiliko du beraz aurrerantzean Ludotekak, eta Paula Herasek egindakoa, Gaztelekuk. Irabazleek Elgoibarko dendetan erosketak egiteko 500 euroko bono bana jaso dute saritzat.



Altzolan, Deba Ibaian, agertu den aparraren iturria zein izan daitekeen aztertzen dihardu Ura agentziak

Arg.: Alzola Basque Water



Ez da lehenengo aldia Deba ibaian, Altzolako presatik behera, aparra agertzen dela, eta horren iturburua non egon daitekeen aztertzen dihardu Ura Agentziak. URAko ikuskariak eremua aztertzen ibili dira eta kamerak ere jarri dituzte, jarraipena egiteko, baina jakinarazi dute oraingoz ez dutela kutsadura-iturririk atzeman. Deba arroko isurketen titular nagusiei ere eman die abisua, azkenaldian gorabeherarik izan den jakitzeko, baina itxuraz, ez da aparteko gertakariarik izan. Altzolako presatik behera sortzen da aparra, eta metro batzuk beherago metatzen

da. Izan ere, ibai morfologiak berak urak geldiarazten ditu eremu horretan. Aparra ibilguaren metro jakin batzuetan ematen da, eta metro batzuk beherago desagertu. Zehaztu behar da tarte horretan, ur-emariak ez duela indar askorik. URAk hainbat lagin ere hartu ditu inguru horretan, baina analisietan ez dute kutsadurarik antzeman. Hala ere, hain sarri agertu direnez, URAk AZTIra bidali ditu lagin batzuk, aparra sor dezakeen mikroorganismorik

egon daiteelakoan, baina ez dute ezer topatu. Hala ere, nabarmendu dute antzerako gertakariak sortu izan dituzten baldintzak gertatu direla azkeneko egunetan: uraren tenperatura altua (22,1°C), emari txikia... Nolanahi ere, gogorarazi dute aparrak edo bestelako zerbait antzeman ezker, 112ra deitzeko lehenbailehen.

Egin zaitez bazkide!
Elgoibarko Izarra

943 741 626

elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus
www.elgoibarkoizarra.eus



Gaur iluntzean amaituko da pintxo lehiaketa Elgoibarren



Ostegunean hasi zen pintxo lehiaketa Elgoibarren, eta gaur iluntzean izango dute herritarrek tabernariak propio lehiaketarako prestatu dituzten mokadu goxoak probatzeko azken aukera, 19:00etatik 22:00ak bitartean. Hogeita sei taberna ari dira parte hartzen lehiaketan, eta pintxoa 1,40 euroan ari dira saltzen. Pintxoa hartzen dutenek botoa emateko aukera ere izango dute, tabernan bertan emango dieten boto-papera beteta.



▶ ANDER MUJKA

NAPOKA IRIA
TALDEKO KIDEA

Napoka Iria musika taldeak agur esango du, eta hamabi urteko ibilbidea amaitzeko azken kontzertua eskainiko dute uztailaren 7an, Eibarko Coliseo antzokian. Ander Mujika elgoibartarrak eta Miren Narbaiza eibartarrak osatzen dute Napoka Iria, baina azken kontzertu horretan ez dira bakarrik arituko. Euren ibilbidean ezagututako hainbat eta hainbat lagunek ere hartuko dute parte emanaldi horretan.

- AINHOA ANDONEGI -



“Negar asko egin dugu, baina zikloak ixtea positiboa da”

♦ Napoka Iria isiltzeko ordua iritsi da. Zer dela-eta?

Orain dela pare bat urte inguru honek guztiak gaina hartu zigun. Azken diskoa atera genuenean kontzertu pila bat eman genituen; beste guztia utzi eta gure jarduna oso-osoan Napoka Iriari eskaintzen genion. Bira hura bukatu genuenean oso nekatuta geunden, eta atsedena hartzea erabaki genuen. Atsedena behar genuen. Bi urte pasatu dira ordutik, eta denbora horretan bai Miren eta baita ni ere, bakoitza bere aldetik ibili gara lanean, nor bere proiektuetan murgilduta. Napoka Iria isilik egon da tarte horretan. Urte hasieran batu ginen berriz proiektua abiarazteko asmoz, baina saiakera pare bat egin genituen arren, ez genuen aurrerabiderik aurkitu. Bikote onenei ere gertatzen zaien bezala, guri ere iritsi zaigu amaiera. Derrigorrean eta halamo-

duz aurrera egin baino, pentsatu genuen hobe zela proiektua bertan behera uztea.

♦ Zaila izan al da erabaki hori hartzea?

Bai. Erabakia bera hartzea baino gehiago, erabaki horretara iritsi arteko prozesua izan da zaila. Erabaki behar genuen zer nahi genuen, zer egin ahal genuen, gure bizitzarako zer zen onena... Hausnarketa horren ondorioa izan da azken erabakia. Aurrera jarraitzea ere erabaki genezakeen, baina gure burua derrigortzea izango zitekeen. Orain beste proiektu batzuetan murgilduta gabilta, beste garai bat bizi dugu, eta gauzak horrela hartu behar dira. Ez dugu dramarik egin nahi. Negar asko egin dugu, baina zikloak ixtea positiboa da; osasungarria. Sentimendu asko nahasten dira: nekea eta pena batetik, baina bestetik, poza, egin dugun guztia-

gatik. Duela egun batzuk gordeta neuzkan dokumentu batzuei begira jardun nuen, eta ni neu ere harritu nintzen egin dugun guztiarekin. Gauza pila bat egin ditugu gure ibilbidean, eta denak ilusioz. Iraun duen bitartean polita izan da, eta horrekin geratzen gara, baina bukatu da.

♦ Atzera bueltarik gabeko erabakia da, orduan.

Bai. Momentuz bai, behintzat. Ezin dut esan ez garenik sekula berriz elkartuko, baina momentuz erabakia behin betikoa da. Bi urteko atsedena hartzea erabaki genuenean ere, jendeak eskatu zigun joteko, baina ezetz esan genuen, bi urtez ez jotea erabaki genuela. Bi urteko epealdia amaitu zenean erabaki bat hartu behar genuen: berriz hasi ala bikoitea desegin. Bigarren aukeraren alde egin dugu. Duda handiak izan ditugu, ea erabaki zuzena izango ote zen, baina

orain seguru gaude eta ez dut uste hartu-tako erabakiaz damutuko garenik.

♦ **Azken kontzertua uztailearen 7an eskainiko duzue, Coliseo antzokian. Kontzertu berezia izango dela aurreratu duzue.**

Bai, lagunez inguratuta amaitu nahi dugu gure ibilbidea. Napokaren ibilbidearen errepasoa egingo dugu, eta ibilbide horretan gure inguruan izan ditugun lagunak gonbidatu ditugu. Batzuk ezin izango dira etorri, baina asko egongo dira. Kontzertu berezia izango da; ondo pasatzeko kontzertua. Gustatuko litzaziguke gure ibilbidean inguruan izan ditugunekin ospatzea azken kontzertua. Azken batean musika bidirezionala da: guk eman egiten dugu, eta publikoak hartu. Publiko hori gabe, gure lanak ez du ezertarako balio. Gure historiaren parte izan den jende horri oso eskertuta gaude.

♦ **Hamabi urteko ibilbidea egin duzue. Zerekin geratzen zara? Zer eman dizu Napoka Iriak?**

Asko eman dit. Orain proiektu desberdinetan parte hartzen ari gara, baina urte askoan Napoka bakarrik eduki dugu, eta asko eman digu. Musikak eman dezakeen guztia eman digu. Ibilbide horretan lagun asko egin ditugu eta leku pila bat ezagutu ditugu. Ez dakit zenbat kontzertu eskainiko genituen, baina 400 bat edo izango ziren, eta horietako batzuk Euskal Herriatik kanpora, gainera. Japoneraino iritsi ginen, eta European zehar ere ibili izan gara. Egia esanda esperientzia oso-oso positiboa izan da. Zorte handia izan dugu. Dena opari modukoak jasotzea izan da.

♦ **Atzera begira jarrita, gogoratzen al zara nola hasi zineten? Nolakoa izan zen zuen hasiera?**

Lagun baten bidez ezagutu ginen Miren eta biok, nahiko kasualitatez. Lau laguneko talde bat osatu genuen berehala, baina ez zuen asko iraun. Talde hura desegin zenean bi bikote sortu genituen: Miren eta ni batetik, eta beste biak bestetik. Inungo pretentsiorik gabe hasi genuen ibilbidea. Gitarra bat hartu eta hor zehar jotzen hasi

“Lagunez inguratuta amaitu nahi dugu gure ibilbidea”



ginen. Ez geneukan entseguetarako lokalik, ez autorik... Kontzertu bat ematera metroz joan ginen, eta beste batera trenez. Baina izugarri gozatzen genuen, egiten genuena bihotzez eta gustura egiten genuelako. Bakoitzak bere lana geneukan, eta asteburuetan elkartzen ginen joteko. Orain dela hiruzpalau urte erabaki genuen gure beselako lanak utzi eta musikara dedikatzea %100ean, hori zelako benetan egin nahi genuena. Gitarra eta ahotsarekin hasi ginen, baina gure ibilbidean zehar gauza desberdinak probatu ditugu. Instrumentu gehiago sartu ditugu, epealdi batean bateria, baxua eta beste gitarra bat sartu genituen eta boskote moduan aritu ginen, eta azken diskoa bateriarekin eta Iban Urizar tronpeta jotzen aurkeztu genuen. Miren eta ni oso ondo ulertu izan gara bai musikari bezala eta baita lagun bezala, eta beti izan dugu gauza berriak proba-

tzeko gogoia. Eta orain ere horretan ari gara.

♦ **Zein egoera bizi du musikaren industriari? Zaila al da zurrunbilo horretan norberaren lekua bilatzea?**

Alor guztietan bezala, lan handia egin behar da, gauzak ondo egin nahi badira, behintzat. Eta egia da musikaren mundua nahiko mundu prekarioa dela, baina posible da musikaz bizitzea. Beste sektore askotan bezala, honetan ere borroka egin behar da. Gauzak ilusioz egiten badira, musikan bidea egitea posible da.

♦ **Zerbait geratu zaizue egiteko?**

Ba ez dakit, ez zait ezer bururatsen, baina ez daukat horren sentsaziorik. Egia esanda, ibilbideak eman digunarekin asebeteta geratu naiz. Hasieran uste genuena baino askoz urrutirago iritsi gara. Abesten ondo pasatzeko helburuarekin hasi ginen, eta hiru disko grabatzera iritsi gara.

♦ **ETBko Tumatxak saioan hainbat talderen abestien bertsioak jo zenituzten, oso modu pertsonalean.**

Bai, ariketa oso polita izan zen, eta jende asko etorri zaigu esaten asko gustatu zitzaizela. Oihartzuna eman zigun eta oso eskertuta gaude. Oparia izan zen guretzat, guri beti gustatu izan zaigulako abestien bertsioak egitea. Askatasun osoa eman ziguten abestiak moldatzeko, eta oso-oso ondo pasatu genuen abestiak prestatzen.

♦ **Hemendik aurrera, zein proiektu dituzte eskuartean?**

Orain Anarirekin jotzen ari naiz, Jabier Muguruzarekin ere badihardut lanean, disko berria prestatzen, eta Iban Urizarri ere laguntzen diot 'Amorante' proiektuan. Nire asmoa musikarekin lotutako proiektuan barneratzea da. Musikarekin lotura duten lan desberdinak egiten ditut, izan ere, gaur egun musikatik bizitzeko gitarra jotea bakarrik ez da nahikoa. Eta Miren ere lan pila bat egiten ari da. Bakarkako proiektua jarriko du martxan batetik, eta bestetik, Zarauzko talde batekin ere jotzen du. Mila saltsatan dabil. Oso pozik gaude.



Udako aisialdi eskaintza oparoa

Ikasturtea amaitu ondoren, astelehenean hasi zen Elgoibarren haurrentzako eta gaztetxoentzako udako aisia eskaintza: Atxutxia-maikaren eta Udalaren eskaintza bateratua alde batetik, eta Kirol Campusa, bestetik. Jolasean zein kirolean, haien onena ematen jardungo dute guztiak.

Bigarren urtez, Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topaguneak eta Elgoibarko Udalak haurrentzako udako aisia eskaintza bakarra eskainiko dute. Astelehenean hasi zuten, eta uztailearen 21era bitartean, 2 eta 12 urte bitarteko 394 umek parte hartuko dute, eta 55 bat hezitzaile arituko dira lanean. Txanda ezberdinetan batuko dira, adin tarte ezberdinetarako lau programa antolatu dituztelako. *Apariketan*, HH2-HH4ko haurrei zuzenduta; *Firin Faran*, HH5-LH1eko haurrentzat; *Abixadan*, LH2-LH3ko haurrei zuzenduta, eta *Aldenik Alden*, LH4-LH6ko haurrei zuzenduta.





Atxutxiamaikako umeak goian, eta behean, Kirol Campusekoak.

Haurren aisialdirako eskubidea oinarri hartuta, Udalak diru-laguntza lerro batzuk jarri ditu abian familia ugarienezako, bigarren seme edo alabarentzako eta gizarte-laguntzen onuradunentzako, eta bide batez, arrisku egoeran egon daitezkeen haurrentzat plazen %5 gorde ditu programa bakoitzean eta txanda bakoitzean. Udalak jakinarazi du guztira 90 familia izan direla onuradunak eta horrek 5.000 euroko kostua suposatu diola Udalari, baina diru-laguntza horiei esker lehen parte hartzerik ez zuten umeek ere parte hartuko dutela udako aisia eskaintzan, eta beraz, haurren perfila anitzagoa izango dela.

Kirol Campusa

Udal Kirol Patronatuak antolatutako Kirol Campusean, berriz, 6 eta 13 urte arteko 220 haur eta nerabe parte hartzen ari dira astelehenetik. EHUⁿ heziketa fisiko eta kirolean lizentziatutako 11 monitore arduratzen ari dira kirol jarduera guztiez. Kirol Campusaz gain, udako igeriketa ikastaroak eta haurrentzako zumba txiki ikastaroak ere antolatu dituzte. Igeriketa ikastaroetarako 50 umeek eman dute izena, eta zumbarako, berriz, hamabostek. Guztira, beraz, 285 partaide izango dira Udal Kirol Patronatuko udako eskaintzan.



KatuEder: Kaleko katuen arazoari irtenbidea emateko

Kaleko katuek sortzen dituzten arazoari irtenbidea emateko asmoz, Elgoibarko katzale talde batek KatuEder elkarte sortu du. Zortzi lagunek osatzen dute taldea. BARRENEK Nerea Urbietta presidentearekin hitz egin du taldearen behar eta zereginari buruz.

Nerea Urbietta katzale amorratuta da; maiteminduta dago katuekin. Katuek "lasaitasuna" ematen diote. Lau katu ditu etxean, eta bere umeak izango balira moduan zaintzen ditu: "Bihurriak dira, eta barre pila bat egiten dut beraiekin, baina batzuetan hase-rretu ere egiten gara". Baina bere katu ez gain, kalean baldintza gogorretan bizi diren katu ez ere arduratzen da. Katuentzako jana eramaten du beti aurotoan, eta ia egunero joaten da hainbat katuru jaten ematera. Horretan ari zela ezagutu zuen Jose Sanchez iaz, beste katzale bat, eta hizketaldi batean erabaki zuten kale-katuei laguntzeko elkarte sortzea. Elgoibarren 200 bat kale-katu identifikatu dituzte, eta euren ustez, Udalak berak bakarrik ezin du kale-katuen arazoa konpondu. "Kale-katuak antzutu ezean asko ugaltzen dira, eta plaga bihurtzen badira, hil egiten dituzte", esan du Nereak. KatuEder taldekoek ez dute hori nahi, eta hori ekiditeko C.E.S. metodoa jarri dute martxan, kale-katuak harrapatu, antzutu eta berriz bakoitza bere kolonian askatzeko. Metodo honi esker katuen kolonien tamaina kontrolatzen dute, katuen bizi baldintzak asko hobetzen dira eta katuen arteko borrorak gutxitzen dira.

Baina horretarako laguntza behar dute. Udalak 2.000 bat euroko dirulaguntza emango die katuak antzutzeko, baina lokal bat ere beharko lukete, katuak gordetzeko. Kale-katuak gaez harrapatzen dituzte kaiola-tranpa batekin, eta hurrengo egunera arte ezin izaten dituzte albaitariarengana eraman. Katu asko, gainera, gaixorik egoten dira, eta



katu horiek askatzeko moduan egon arte nunbaiten eduki behar izaten dituzte. Lokalaren faltan, KatuEder elkarteok hartzen dituzte euren etxeetan. Behin sendatzen direnean, bakoitza bere koloniarantz itzultzen dute. Katuek oso ondo zaintzen dute beraien eremua, eta oso espazio mugatua mugitzen dira. Kolonia itxietan bizi dira, eta ez dituzte beste kolonietako katuak onartzen. Kontu handiz ibili behar izaten dute KatuEderreko lagunek gai horiekin. Baina katu guztiak ez dira egoten koloniarantz bueltatzeko moduan, eta horiek adopzioan ematen saiatzen dira. Nerea Urbietta esan du adopzioen kopuruak behera egin duela azkenaldian, eta gero eta katu gutxiago hartzen direla adopzioan. Arrazoen artean krisialdia aipatu du: "Katua mantentzeak hainbat gastu ditu, bereziki, albaitaritza gastuak, eta jende asko lanik gabe edo hilabete amaierara iristeko zailtasunekin bizi da". Azkenean elkarteok kideek hartzen dituzte katu horietako asko beraientzat. Jendartean oso zabaldua dagoen pentsamoldea izan arren, Nereak argi dauka katuak kalean ez direla ondo bizi: "Negua gogorra da kalean, eta katuek ere sufritu

egiten dute, gizakiok bezala". Kulturalki zabaldua dago katuak independenteak direla eta badakitela kalean bizi-tzen, baina Nerea Urbietak katuei buruzko informazio asko bildu du urteetan, eta ziurtatu du katuak ere hobeto bizi direla etxean.

Baina katuak etxean hartzeko kontzientzia apur bat beharrezkoa da. Nerea harrিতта dago kale-katuen artean antzutzutako katuak ere aurkitu izan dituztelako: Jendeak etxean eduki dituen katuak dira horiek; jabeak kalean abandonatutako katuak: "Hori oso krudela da", esan du. "Txikitari oso politak dira, baina hazten direnean jendea ez zaizkio hainbeste gustatzen eta abandonatu egiten ditu, bereziki opor garaian". Katu bat hartu nahi duenak, animalia zaintzeko konpromisoa erakutsi behar du.

Bazkideak

24 euroko urteko bazkide-tza kuota ezarri dute, eta momentuz zortzi lagunek osatzen dute taldea. Hala ere, elkarteok ateak zabalik dituzte katzale guztientzat. Interesatuak katueder@gmail.com helbidera idatzi dezakete.

Robotika eta bideo-joko tailerrak antolatu dituzte udarako Debabarrenean

Eibarko Udalak antolatu du *Gazterobotika* egitasmoa, gaztetxoaren artean zientzia, teknologia, ingeniari, artea eta matematikarako interesa pizteko, eta Debabarreneko Udalgaiari egin dute bat. Hala, Debegesa garapen agentziaren koordinazio pean, hamar tailer teknologiko antolatu dituzte udarako, eskualdeko herri ezberdinetan. Hogei orduko tailerrak izango dira, bost goizetan emateko, eta 2001 eta 2009. urteen artean jaiotako haur eta gazteek eman dezakete izena. Talde lana sustatuz, gaztetxoek euren robotak eraiki eta programatu dituzte, eta jolastu eta ondo pasatzeko aukera izango dute. Robotikaren mundua ez ezik, bideo-jokoak sortzen ere irakatsiko diete. Tailerrak euskaraz izango dira eta Doplay enpresak emango ditu.

Elgoibarren, uztailaren 10etik 14ra eta uztailaren 17tik 21era izango dira tailerrak, eta interesatuek 30 euro ordaindu beharko dituzte izena ematean (Udalek diruz lagundutako tailerrak dira). Plaza mugatuak izango direla jakinarazi dute antolatzaileek, eta horrenbestez, komeni da izena lehenbailehen ematea gazterobotika.eus webgurean.

Era berean, irailaren 23an, Euskadiko I. Hezkuntza Robotika Txapelketa egingo dute Eibarko Astelena frontoian, Eibarko Udalak sustatuta, eta udako tailerretan izena eman duten guztiek izango dute parte hartzeko aukera. Berez, baina Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko 8 eta 16 urte bitarteko gazte guztiei dago zabaldua lehiaketa hori.

Santanetarako danborradarako eta adinekoen bazkarirako izena emateko epea, zabalik

Uztailaren 22an hasiko dira aurten Santa Ana jaiak, Mendaron, eta dagoeneko hasi dituzte aurrelanak. Hasteko, Udalak jakinarazi du zabaldu dutela adinekoen bazkarirako izena emateko epea. Uztailaren 23an egingo dute bazkari hori, ohi legez Aizpe elkartearen, 14:30ean, eta interesatuek uztailaren 12ra arteko epea dute izena emateko. Aizpen bertan, Lagun Betikoak tabernan edota Roteta dendan eman behar da izena. Aurten gutxienez 70 urte betetzen dutenek edota senar-emazteetako bat adin horretara iritsi direnek bakarrik eman dezakete izena. Bestalde, uztailaren 25ean nagusien danborradan irten nahi dutenek uztailaren 3an eman beharko dute izena, ikastolako patioan egingo den lehen entseguan. Entsegu egunak honako hauek izango dira: uztailaren 3,5,10,12, 17 eta 19. 21:00etan hasiko dira entseguak.

Suak argitu du San Joan gaua, eta uxatu ditu txarrak

Ohitura den legez, Mendaron, Herriko Enparantzan isotu zuten sua, eta Ludotekako eta Gaztelekuko gazteek girotutako aklarre baten bueltan ospatu zuten erritua. Elgoibarren, ez zegoen berez ezer antolatuta, baina udaltzainek zehaztutako lekuan suak piztu zituzten herritarrek. Eta Altzolan ere jairik ez zela izango iragarri zuten auzotarrek, baina azkenean, jai-legea egin zuten hainbat auzotarren ekimenez.



'La la Land' filmaren emanaldiarekin hasiko da bihar aire libreko zinea

Hamar film eskainiko dituzte aire libreko zinea emanaldietan (euskaraz, hiru). Bihar hasiko dira emanaldiak, *La La Land* film musikalarekin, eta saio gehienak barixaku eta zapatu iluntzetan izango dira, 22:30ean. Eurria egiten duen egunetan, proiektioak atzeratu egingo dituzte. Uztailaren 14an, barixakua, *Memoriaren Ganbaratik* emango dute. Filmak bereizmen handian eskainiko dituzte, Blu-Ray formatoan.



JUAN MURILLO

KARATE MAISUA



“Karatea heziketa eta diziplina da niretzako”

Juan Murillok (Lora del Rio, Espainia, 1958) Euskal Herriko mailarik altuenetakoa du Karatean: Seigarren Dana. Era berean, Danak eskuratu nahi dituzten karatekek beregana jo behar dute, Euskal Karate Federazioko Gradu Saileko arduraduna baita. Alegia, goren mailako karateka da. 70eko hamarkadan hasi zen karatea egiten, eta 1996an Kanku Anaitasuna zentroa ireki zuen Azkoitian. Duela urte eta erdi, berriz, Kanku zentroa ireki zuen Elgoibarren. Karatea eta gainerako gerra arteen bidez jaso daitezkeen baloreak bizitzako alor guztietan ezar daitezkeela dio.

- ASIER ORBEA -

◆ Noiz hasi zinen karatean?

Gaztea nintzela boxeoa hasi nintzen lehenik. Neure kabuz hasi baino gehiago boxeoa egitera behartu nintzen, nolabait. Onartu beharra daukat nahiko kinkia nintzela sasoi hartan, kalea eta borroka gustatzen zitzaizkidalako, eta Tomas Garcia koinatuak atera ninduen kaletik. Andoni Amaña boxeolari mitikoaren entrenatzailea zen koinatua, Eibarren. Halaxe, bere gimnasioan sartu ninduen 15 urte nituenean. Berak zuzendu ninduen. Lanean ere sasoi hartan hasi nintzen, pintxe moduan, etxean ikasketarik ezin izan ziguten-eta eman. Ezkondu eta gero hasi nintzen ni ikasten. Kiromasaje eta osteopatia ikastaroak

egin nituen 80ko hamarkadan. Orduan hasi ziren baliozkotzen kirol irakasle tituluak, baina ez nuen horiek lortzerik izan. Geroago eskuratu nuen titulua Madrilgo INEFean (Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientziaren Fakultatea). Karatera, esaten ari nintzen moduan, boxeo mundutik ailegatu nintzen.

◆ Sasoi hartan ezaguna zen karatea inguruotan?

Ez, hastapenetan zegoen hemen karatea. 70ko hamarkadaz ari naiz. Hiriburuetan bakarrik zen ezaguna, Japoniako maisuak etortzen baitziren Bilbo edo Donostia moduko hirietara. Boxeoa moduko kontaktuzko kirol batean genbiltzan gu, eta jakin nahia piztu

zitzagun, maisu haiek ematen zituzten erakusketen berri izan genuenean. Erakusketa haietako bat ikusi nuen Bilbon, eta ikusi eta bat jakin nuen huraxe zela nahi nuena. Pentsa, 70eko hamarkadaren ondarrean izan zen hori, eta hemen jarraitzen dut oraindik. Gehien gustatu zitzaidana inor ezin nuela jo izan zen. Gainera, nola diren gauzak, erakustaldia eman zuen maisua Eibarren hasi zen eskolak ematen. Hiruzpalau urte egin nituen berarekin. Soldadutzara joan behar izan nuen gero. Bi urte eta erdi egin nituen Cadizen, baina han ere izan nuen karatearekin jarraitzeko aukera. Halaxe hasi nintzen honetan, eta gero eta gehiago murgildu nintzen, gaur egunera

arte. Ekialdeko terapietara ailegatzeko erreminta izan da niretzat Karatea, Chi Kun, Tai Chi eta akupuntura ezagutzeko bidea erakutsi didalako.

♦ **Elgoibarkoaz gainera Azkoitian duzu eskola, Anaitasuna Kanku Kluba?**

Halaxe da. Azkoitian errotuta dago gure eskola. Soraluzeko kiroldegian hasi nintzen karatea erakusten eta Azkoitiko kiroldegia inauguratu zutenean, 1988. urtean, klaseak ematera joateko eskatu zidaten Azkoitiko Udaleko kirol ardura-dunek. Sei lagun helduri klaseak ematen hasi nintzen eta lagatzeko zorian ere egon nintzen, Azkaraten gora eta behera haraino joatea gogorra egiten zitzaidalako, eta ikasle gutxi gerturatu zitzaikigulako. Jarraitzera animatu ninduten, zorionez; eta, irailean, umeentzako eskolak ere ematen genituela iragarri ostean, 30 ikaslelik gora batu zitzaizkigun. Handik urte batzutura, alkate eta alderdi aldaketan menpean ez egoteko, Kanku Anaitasuna eskola ireki nuen. 1996. urtean izan zen. Gaur egun oso ondo funtzionatzen du eskolak eta 100 ikaslelik gora ditugu karatean bakarrik.

♦ **Duela urte eta erdi ireki zenuten Elgoibarren Kanku zentroa. Nolatan?**

Kanku eskola handitu nahi nuen, eta era horretan, lan mundurako ateak ireki nirekin lanean ziharduten zenbait irakasleri, niri ez baitzait erretiroa hartzeko askorik falta. Kankuk Tai-chi, Chi Kung eta Kung fu irakasle aditu eta trebatuak ditu, eta apustu ekonomikoa eginez, Elgoibarren ere Kanku zentroa ireki nuen. Gertutasunagatik eta herri kirolzalea dela badakigulako, eskola Elgoibarrera zabaltzea erabaki genuen. Eta lokal hau (Pedro Murgurutz kalean) ikusi genuenean ezin aproposagoa iruditu zitzaigun. Hainbat jardura eskaintzen ditugu: Karatea, Tai-chi, Chi Kung, Kung fu, fitness tonifikazioa, ume eta helduentzako zumba, pilates eta gimnasia terapeutikoa, Fit Box... Guzti horien gainetik, baina, gure eskolaren helburua da heziketa eskaintzea. Bizitzari aurre egiteko jarrera erakusten dugu hemen. Karateak oinarritzko bost

zutabe ditu: nortasunaren heziketa, zuzentasuna, ahalegina eta iraunkortasuna, besteenganako errespetua eta indarkeria erreprimiteza. Balio horiek guztiak bizitzako alor guztietan ezar daitezke. Karatean umiltasuna eta errespetua uneoro erakusten dira.

Karatera hurbiltzen diren gehienak autodefentsa teknikak ikasteko asmoarekin datozen arren, nik irakasten dudak karateak denetik dauka, kolpeak izan ezik. Begirada bat, jarrera bat edo postura batekin defendatzea posible dela irakasten diet. Inor jotzeko beharrik gabe mehatxua sentiarazi diezaiokezu parekoari.

“Emozioen intelligentziaren inguruko ikerketa aurkeztu nuen 6. Dana lortzeko”

♦ **Azalduiguzu zertan datzan jarrera hori.**

Karatea heziketa eta diziplina da niretzako. Borroka arte hau tresna moduan erabiliz terapia egin dezakegu gainera. Hasieran onartzeko zaila izan daitekeen arren, azkenerako eskertu egiten da diziplina, balantza orekan baitago. Diziplina handiagorekin lasaitu egiten gara, arreta gehiago jartzen dugu gauzetan, eta kontzentratuago ere bagaudenez, gehiago entzuten diogu gorputzari. Hori guztia terapia da. Azalekoa izango da agian, baina onura dakar. Eta terapia sakonagoak nahi izanez gero, hori ditugu Tai Chi-a eta Chi Kung-a edo baita maila bat gorago dagoen akupuntura ere. Lehen biekin organismoan eta aldarrean eragin dezakegu. Eta akupuntura, berriz, ziztaden bidez sendatzeko bidea ematen duen terapia zaharra da.

♦ **Akupuntoreak trebatzen dituzu.**

Kiromasaje eta osteopatia ikasta-

roak egin eta gero Ipar Koreako maisu batek erakutsi zidan akupuntura, beti izan bainaiz kimika farmaziologikoaren aurkakoa, erabat. Denbora asko daromat sendagairik hartu gabe. Beti bilatu ditut alternatibak. Akupunturan erabiltzen diren orratzek ez dute sendagai guztiak dituzten albo-ondoriorik eragiten. Pasioa izan da niretzat akupuntura, baina nekagarria ere bai, borroka asko egin behar baita akupuntura zer den ongi ezagutazteko, besteak beste, farmakoen industriak sarkin gisa ikusten gaituelako. Irunen Biotao elkarteak sortu genuen bazkide batek eta biok, eta horrez gainera, akupuntoreak trebatzen ditut Galdekaon.

♦ **Karatera itzuliz, seigarren Dan maila eskuratzeko emozioak eta motrizitateari buruzko tesia aurkeztu zenuen.**

Emozioen inteligentziaren inguruko ikerketa aurkeztu nion epaimahaiari, eta asko gustatu zitzaion. Gizakiaren emozio primarioak honakoak dira: amorrua edo haserre, poza edo histeria, gehiegizko hausnarketa, antsietatea eta beldurra. Bost emozio horiek kontuan hartuta, nire ikasleak aztertu nituen tesia egiteko. Hala nola, enpatia, besteenganako harremana edota autoestimua landu nituen. Hau guztia formazioaren barruan dago.

♦ **Euskal Karate Federazioko Gradu Saileko arduraduna zara.**

Bai, 2.000. urtetik hona gerriko beltza lortu ostean eskuratu daitezkeen Danak (maila japonieraz) nire eskuetatik pasatzen dira. Karatean hasi eta hamabi urtera lortu daiteke karatearen ikurretako bat den gerriko beltza. Lehen Dana handik bi urtera eskuratu daiteke epaimahai baten aurrean azterketa pasa ostean, eta hiru urtera lortu daiteke bigarregoa. Azterketa horietan kalitate handiagoko karatea egin dezaten orientazioa eskaintzen diet ikasleei. Eskertzen dut nigan jartzen duten konfidantza, baina konpromiso eta ardura handia ere bada, eta hau izango da nire azken legegintzaldia, 2020an lagatzeko asmoa daukat-eta.

Omar Aizpuru 25 urteko azpeitiarrak entrenatuko du Haundi erregional preferentean

Liga txapelketa azken laugarren postuan bukatu ostean, mailari eusteko aukera bakarra zuen Haundik: Bigarren B Mailarako igoera fasean bi euskal taldek igoera lortzea. Mailari eusteko aukerak urriak izan arren, gutxitan gertatu baita bi euskal taldek denboraldi berean lortzea Bigarren B Mailarako igoera, miraria gauzatzeko gutxi falta izan da, hiru euskal talde ailegatu baitira azken kanporaketaraino. Azkenean, baina, C.D. Vitoria Eibarren bigarren taldeak bakarrik lortu zuen igoetza. Horrenbestez, maila galdu du Haundik eta erregional preferentean jokatu du estreinakoz.

C.D. Elgoibarrek, hain zuzen, joan den martitzenean aurkeztu zuen Haundiko entrenatzailea: Omar Aizpuru azpeitiarra. 25 urteko entrenatzaile gaztea izanagatik, bederatzi urteko esperientzia duela nabarmendu dute klubeko arduradunek. "Ibilbide osoa Azpeitiko Ikasberrin osatu du, bost urtean harrobiko taldeak entrenatuz eta beste lau urtez preferente mailako taldea", azaldu dute. Aizpuru "ilusio eta gogo handiz" datorrela gaineratu dute eta klubaren filosofiarekin erabat bat egiten duela. Amaitu den denboraldian hamabi jokalarri elgoibartar egon dira lehen taldean, eta horrez gain, erregio-



naleko zazpi jokalarrik eta jubenil taldeko jokalarri batek egin dute debuta Haundirekin.

Markel Kerexetak irabazi du Udaberriko Xake Txapelketa




Markel Kerexeta eta Mikel Leon finalean. Eskuman, Kerexeta eta Iriondoko Julen Agirre.

Elgoibarko Xake Taldeak antolatuta, hirugarren Udaberriko Xake Txapelketa jokatu dute Iriondo tabernan. 24 xakelari aritu dira lehiari apirilean hasi zuten txapelketan, eta astelehenean jokatu zuten finala Mikel Leonek eta Markel Kerexetak. Estreinako finala zen Kerexeta gaztearentzat eta hirugarrena Leonentzat, txapelketa jokatu den hiru aldietan ailegatu baita finalera. Lehen edizioko finala galdu egin zuen Ivan Fernandezek aurka, iazko finala irabazi egin zuen, eta, txapelkunorde izan da aurten, Markel Kerexeta gailendu zitzaizolako finalean. Ivan Fernandez Rodriguez sailkatu zen hirugarren postuan, Mikel Fidalgori irabazita. Kopa txapelketako finalean, berriz, Felix Manso urnietarra gailendu zen, estreinakoz parte hartzen zuen Jabi Muñoz mendaroarrari irabazi eta gero.

Nahaste Borraste, gaur, 19:00etan

Kimetz elkarteak antolatzen duen Nahaste Borraste proba herrikoia 33. edizioa jokatu dute gaur, 19:00etatik aurrera, herriko kaleetan. Izena emateko, proba hasi aurretik joan behar da Kimetz elkartera. Partaideek hiru probatan lehiatu behar dute: zazpi kilometro inguru egin behar dituzte bizikletaz, ondoren 400 metro korrika zakua bizkarrean hartuta, eta azkenik, 1,5 kilometro antxitxika. Kalegoen plazan hasi eta bukatuko da proba.



Mutriku eta Zumaia aldera joan dira pala txapelketetako txapelak



Jendetza batu zen aurreko barixakuan Kalegoen plazako frontoian jokatu zituzten emakumeen eta gizonen pala txapelketetako finalak ikustera. Emakumezkoen finalean Nerea Irustak eta Aintzane Arizmendik osatutako bikote elgoibartarrak 20-22 galdu zuten Maite eta Iratxe Barruetabeña ahizpa mutrikuarren aurka. Gizonzkoen finalean, Arroa Beheko Jokin Artetxek eta Zumaiako Josu Salegik 22-17 irabazi zieten Kepa Arrizabalaga eta Julen Guenetxea elgoibartarrei. Emozioz beteak eta lehiatuak izan ziren bi finalak eta bi orduz luzatu ziren. Argazki gehiago: www.barren.eus

Aurten ez da Sigmako pilota txapelketarik jokatu, eta jairik ere ez da izango auzoan



37. aldiz jokatu behar zuten aurten Sigmako Pilota Txapelketa beteteranoa, baina bertan behera laga dutela jakinarazi dute antolatzaileek. Era berean, uztailaren 25ean, Santiago Egunean, Sigma auzoan antolatzen zituzten festak ere bertan behera laga dituztela gaineratu dute. Eulogio Estarta elkarteko Jose Antonio Ruizek azaldu duenez, pilota txapelketa zein jaiak antolatzeko prest dagoen lagun nahikorik ez dagoelako hartu dute erabakia. "Neu ibili naiz azken sei urteetan pilota txapelketa antolatzen, eta baita jaiak antolatzen ere, azken bi urteetan. Gero eta laguntzaile gutxiago ditudenez, aurten etena egitea erabaki dugu. Hurrengo urtean berriz antolatzeko asmoa eta ilusioa daukat, elkarteko zuzendaritza berrian sartuko diren lagunekin berba egin baitut eta antolatzeko prest daudela adierazi baitidate", azaldu du Ruizek. Santiago egunaren bueltan antolatzen dituzten jaiak indartu zituzten auzokoek 2014an, eta "arrakasta handiz" ospatu dituzte azken bi urteetan Ruizen arabera.

Padel eta Tenis txapelketetako finalak, zapatuan

40 + 15 Elkarteak antolatzen dituen Padel eta Tenis txapelketetako 10. edizioko finalak bihar, hilak 1, jokatuko dituzte Mintxetan, 10:30etik aurrera. Lerro hauek idazterakoan emakumezkoen padel txapelketako finala bakarrik zegoen erabakita. Durangoko Sonia Merinok eta Olatz Lejardik Alicia Iglesias eta Nora Hadi elgoibartarren aurka jokatu dute finala. Gizonzkoen padeleko finala 11:30ean hasiko da eta 12:00etan teniseko finala.

Bizikleta Festa, bihar

Elgoibarko Lagun Taldea txirrindulari eskolak Bizikleta festa antolatu du biharko, txirrindularitzarako zaletasuna sustatzeko. Sallobentera bizikleta irteera egingo dute 11:00etan, adin guztietako txirrinduzaleentzat. 12:00etan, Ginkana egingo dute. Ez dago izena eman beharrik.

Lagunak Pilota Txapelketako irabazleak

Lagunak Pilota Txapelketako finalak jokatu zituzten ekainaren 22an Kalegoen plazan. Aurre-benjaminetan, Aritz Gandiagak 16-13 irabazi zion Oxel Urrusolori. Benjaminetan, Beñat Cearsolo gailendu zen, Haitz Oñederrari 16-7 irabazita. Alebin B mailan Markel Gorosabel nagusitu zen, Xabi Goñiri irabazita (16-4). Alebin A mailan Iker Izagirrek 16-10 irabazi zion Eneko Etxanizi. Bigarren mailako alebinetan, azkenik, Alex Berguak 16-6 irabazi zion Aimar Almortzari.



LANA.....
Eskaerak

Gizona eskaintzen da adinekoak zaintzeko. ☎ 635 005 536

Nagusiak eta umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Euskaraz dakit. ☎ 662 401 585

Adinekoak zainduko nituzke. ☎ 642 650 815 (Fran Orozco)

Umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Arratsaldez. ☎ 654 304 337

Pertsona nagusiak zaintzen egingo nuke lan. Interna edo orduka. Gauak pasatzeko ere prest. ☎ 631 417 922

Emakumea eskaintzen da, edozein lan egiteko. ☎ 632 915 647

Adinekoak zainduko nituzke, interna. ☎ 602 152 685

Nagusiak eta umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka. Esperientzia daukat. ☎ 602 490 595

Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. ☎ 665 205 505

Neska euskalduna eskaintzen da ospitalean gaixoak zaintzeko. ☎ 688 639 371

Adinekoak zaintzeko, sukaldari laguntzaile aritzeko edo zerbitzari lanetarako prest nago. ☎ 612 572 229

Adinekoak zaintzeko edo sukaldari laguntzaile lanetarako prest nago. ☎ 612 533 866

Adinekoak zainduko nituzke, Elgoibarren edo Mendaron. Sukalde laguntzaile moduan esperientzia handia daukat. ☎ 638 338 816

Adinekoak zaintzeko prest nago. Interna. ☎ 661 025 434

Adinekoak zaintzeko prest nago. Interna. ☎ 645 891 307

Eskaintzak

Emakume euskalduna behar da adinekoak zaintzeko. Gidabaimena beharrezkoa. ☎ 699 217 721 / 606 523 477

Pertsona nagusi bat zaintzeko emakumea behar dugu, interna. Paperak legez izatea beharrezkoa. ☎ 669 339 529

LOKALAK.....
Pedro Mugurutzan 180 m²-ko lokala salgai. 30.000 euro. Berritzeko. Etxebizitzak egiteko baimenarekin. ☎ 667 528 134 / 676 087 537

BESTELAKOAK.....
Lursail edo baratza txiki bat erosi edo alokatuko nuke herriitik gertu. ☎ 669 339 529

Belarhesiak mozteko makina elektrikoa salgai. Gutxi erabilitakoa. 150 euro. ☎ 667 406 490

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira. Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 18€ (alokairua). 22€ (salmenta). Autoak saltzea: 18€ Bestelakoak: 10€. Iragarkiari erretratua jarriz gero, 6€ gehiago ordaindu behar dira.

BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:

Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 15€ (alokairua). 20€ (salmenta). Autoak saltzea: 15€. Bestelakoak: 8€. Iragarkiari erretratua jarriz gero, 5€ gehiago ordaindu behar dira.



Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Negocios
Euzko Elkarte Administrazioaren Kontseilua



ROSA Mª PINTADO

Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net

Gure komunitateko atiko batean piztina handi bat jarri dute. Nire etxea, justu, etxebizitza horren azpikoa da, eta arduratuta gaude piztina horrek har dezakeen pisuagatik eta horrek eraikinaren egiturari eragin diezaiokkeen kalteagatik. Presidenteak promotoreari galdetu dio ea legezkoa den, eta hark ezetz esan ostean, mesedez piztina kentzeko agindu die etxe-jabeei. Baina jabea ez dago konforme, eta horregatik, jakin nahiko nuke zeintzuk pauso eman ditzakegun.


Nire iritziz, legean jasota dagoen kontua da hori, debekatutako jarduera bat delako, komunitatearentzako arriskutsua izan daitekeena. Izan ere, arazo larriak sor daitezke, piztina horrek noizbait arazoren bat balu. Kontuan izan behar dugu teilatua ez dagoela halako azpiegitura handi bati eusteko pentsatuta.

Presidenteak, bere ekimenez edo bizilagunen batek hala eskatuta, piztina hori berehala kentzeko aginduko dio etxe-jabeari, eta kendu ezean, auzitegietara joko duela ohartaraziko dio. Hala ere, kenduko ez balu, presidenteak jakiekideen batzarra antolatuko luke, eta haren babesean, behar diren erreklamazio guztiak aurkeztuko ditu etxe-jabe horren kontra.

AHOLKUA: Auzitegietara jo aurretik, bestelako bitartekotza-bide guztiak agortzea komeni da; arazoa onean konponetzea, alegia.



Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENeke bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Zorionak, **Eneko**, igandean 2 urte bete zenituelako. Muxu potolo bat familiakoekin partez.



Zorionak, **Aiur!** 7 urte dagoeneko, mutil handi! Ondo pasa igandean. Familiako denak asko maite zaitugu.



Gure sorgintxoak 3 urte bete ditu. Zorionak, etxe-koen partez.



Zorionak, **Izeia**, bihar urtetxo bat egingo duzulako. Muxu asko Unax, Oier eta etxe-ko guztien partez.




Zorionak, **Libe**, astelehenean urtetxo bat egingo duzulako. Muxu bat etxe-koen, eta bereziki, Aimarren partez.



Zorionak, **Go-rane**, 11 urte egin dituzulako. Muxu handi bat familiakoekin eta, bereziki, Ikerren partez.



Zorionak, **Unax!** Jarraitu beti bezain alai. Patxo handi bat familiakoekin partez.



Zorionak, **Nahia**, maitia! Etxeko guztien partez 9 belarri tirakada goxo. Berreziki, Maialenek, Elenek eta Ibonek.



Zorionak, **Nori-Nori!** 12 urte bete dituzu! Ez galdu inoiz irribarre hori! Etxekoak.



Zorionak, **Maddi!** Asteartean 9 urte beteko dituzulako. Muxu handi bat Aneren eta etxe-koen partez.



Zorionak, **bikote!** Oso ondo pasatu genuen zuen ezkontza egunean. Ondo pasa bidaiari! Familiakoekin partez, besarkada handi bat.




Zorionak, **bikote!** Aurten ere ekaina berezia izan da, zuen beste urtebetetze bat ospatzen. Patxo goxo pila biontzat!



Zorionak, **Iraitz eta Alberto**, zuen urtebetetze egunean. Muxu asko etxe-koen partez.



Zorionak, **Nora** zure hamargarren urtebetetzean! Patxo handi bat etxe-ko guztien partez!



Zorionak, **Iker Txurruka eta Maizane Beobide!** Iritsi da zuen eguna! Zapatuan mundial pasatuko dugu. Muxu eta besarkada bana, senide eta lagunen partez.

Erretratu bakarreko agurra: 4,50€.

Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra: 3,50€.

Argazki bikoitza: 6€ Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.

RPP 183V12

Uzuri

ELGOIBAR - DEBA

optika audio

San Frantzisko, 21 - Elgoibar
Tel.: 943 740 359 www.uzurioptika.com



IGERIKETARAKO
BETAURREKO GRADUATUAK **79€** tik hasita

30 BARIXAKUA

19:00 Nahaste Borraste. Kimetz elkar-teak antolatuta, Kalegoen plazan.

19:00 BH Institutuko ikasleen diploma banaketa. Herriko Antzokian.

1 ZAPATUA

10:30 Emakumezkoen padel txapelketako finala.

11:30 Gizonezkoen padel txapelketako finala.

12:00 Tenis txapelketako finala. 40-15 elkarteak antolatuta.

12:00 Bizikleta festa. Lagun taldeak antolatuta, Kalegoen plazatik Sallobentera joango dira

7 BARIXAKUA

8:00 Iruñeko San Ferminetako entzierroak, zuzenean. Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Hilaren 14ra arte, egunero emango dituzte.

10:30 San Fermin Txiki. San Bartolome eta Errosario kaleetan zehar egingo dute entzierroa, Atxutxiamaiak antolatuta.

21:30 Bideo Foruma. 'La bicicleta verde' filma landuko dute, Loredi Salegik dinamizatuta. Antolatzailea: Haizea.

22:00 Ultratrail lasterketari ongi-etorria, Azkaraten.

SAN PEDRO JAIK IDOTORBEN

30 BARIXAKUA

21:00 Lagun arteko afaria San Pedro elkartearen.

23:00 Mus txapelketa

1 ZAPATUA

16:30 Umeentzako jolasak eta Russoren animaliak.

20:00 Triki mendi-buelta.

21:00 Lagun arteko afaria, San Pedro jatetxean. Izena emateko 943 740 010 telefonora deitu.

21:30 Gaupasa, Iñaki Laja eta Andoni Larrañagarekin. Sorpresa.

2 DOMEKA

10:45 Meza. Ondoren San Pedro elkarteak eskainitako salda eta txorizoa.

Ondoren, dantza Haritz EDT taldekoekin. (Auzoko umeak protagonista).

13:00 Bolo txapelketa.

17:30 Idi-demak.

9 DOMEKA

Euskadiko Enduro Motor txapelketa

8:30 Egiaztapenak frontoian.

9:30 Lasterketa

14:00 Sari banaketa.

LAN DEIALDIA

Elgoibarko Izarrak ATXUTXIAMAIAKARAKO KOORDINATZAILEA behar du

ESKATZEN DA:

- Hezkuntzarekin zerikusia duten ikasketak.
- EGA edo baliokidea.
- Begirale titulua.
- Aisialdian lan-eskarmentua.

BALORATUKO DA:

- Jarrera dinamikoa eta sortzailea.
- Taldean lan egiteko gaitasuna.
- Ordutegi malgutasuna.
- Euskalgintzan jardun izana.
- Zuzendari titulua.
- Elgoibar edo ingurukoa izatea.

ESKAITZEN DA:

- Jardun osoko lan kontratua.



Curriculumak AURKEZTEKO epea: UZTAILAK 9
atxutxiamaika@elgoibarkoizarra.eus edo 943 741 626 (Mikel)

Aire Libreko Zinea (Kalegoen Plazan)

'La la land'

1 zapatua, 22:30



'Los del túnel'

7 barixakua, 22:30



Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

Guardiak

09:00 - 22:00

30 Barixakua BARRENETXEA
 1 Zapatua IBAÑEZ
 Goizez: GARITAONANDIA
 2 Domeka IBAÑEZ
 3 Astelehena GARITAONANDIA
 4 Martitzena ETXEBERRIA
 5 Eguaztena ORUESAGASTI*
 6 Eguena YUDEGO
 7 Barixakua BARRENETXEA

20:00 - 22:00

* Guardia Elgoibartik kanpora denean, asteburuetan ezik:
 BARRENETXEA (Elgoibar) - Errosario, 26
 Tel.: 943 741 277

22:00 - 09:00

MANDIOLA (Eibar) - San Agustin, 3 - Tel.: 943 820 533

* Fernandez: Herriko enparantza, 4
 Garagartzta (Mendaro) - Tel.: 943 756 142
 * Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze)
 Tel.: 943 751 638
 * Oruesagasti: Kalebarren, 9 - (Soraluze)
 Tel.: 943 751 384

Carmen Moulian Mendia



2017ko ekainaren 19an hil zen 99 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.





Manu Sanchez

Unai Villena



Probatu nituen tisanak, marihuana, *valiuma*, *orfidala*, *lorazepana*, yoga, homeopatia, akupuntura, Bach loreak, kromoterapia, hipnosia, familia-konstelazioak, psikomagia, xamanismoa... baina ezerk ez zuen eraginik izan: zuk hutsik utzitako ohearen aldea beste norbaitek bete arte irauñ zidan loezin sendatu ezinezko hark.

Badatoz santanak eta sanbartolomeak!

BARREn publizitatea jartzeko:
943 744 112 edo barren.publi@elgoibarkoizarra.eus





Jesus Lopez de Larrinzar Larrea

2017ko ekainaren 22an hil zen, 85 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



I. URTEURRENA

Pedro Aguinaco Isusi

2016ko uztailaren 1ean hil zen, 79 urte zituela.

Zure oroimena beti izango da gure bihotzetan.



Itziar Ansola Iriondo

2017ko ekainaren 22an hil zen, 59 urte zituela.

***Solasaldi atsegin eta alaiak zurekin,
horixe dugu gogoan.
Joan bazara ere gurekin zaitugu
geure pentsamenduetan.
Alai eta pozik, Itziar.
Ez dioarik.***

Pedroren kuadrilla



Itziar Ansola Iriondo

2017ko ekainaren 22an hil zen, 59 urte zituela.

***Ekarri zenigun Debatik zure alaitasuna,
joan zara guregandik,
baina zure oroitzapenak alaitasun hura utzi digu
Beti arte, Itziar.***

Elgoibarko zure lagunak





lea artibai

ikastetxea

Prestatu Energiaren profesionala izateko! Energia Eraginkortasuna eta Eguzki Energia Termikoa

Goi mailako Lanbide Heziketa honetan eraikinetako klimatizazio instalazioen diseinu, muntaia eta mantenuak egiten dira. Instalakuntza hauetan eguzki energia termikozko instalazioak eta beste energia berriztagarriak nola integrazten diren ikasten da.

Industrian zein eraikuntzetan energia eraginkortasuna ebaluatzeko metodoak erabiliz, hurrengo gaiak aztertzen dira: argiztapena, hotz eta bero instalazioak, ur instalazioak, energia berriztagarriak eta ziurtapen energetikoak.

Guzti hau modu praktiko eta talde lanetan oinarritutako erronka bidezko metodologia kooperatiboak erabiliz. Baita DUAL sisteman ikasteko aukerarekin.

Ikasketa hauek bukatzean IMT, IA eta GF2 Eusko Jaurlaritzako Industria karnetak eskuratzen dira.



Mikel Urreizti (Mutriku, 1993) Beroa Sortzeko Instalazioak erdi mailako Lanbide Heziketa egin ondoren Energia eraginkortasuna eta eguzki energia termikoa Goi Mailako Lanbide Heziketa egiten dago SANTI LLAN enpresan DUAL sistemaren bidez ikasten eta lanean aldi berean.



Iñigo Agirre (Ondarroa, 1974) Energia eraginkortasuna eta eguzki energia termikoa Goi Mailako Lanbide Heziketa ikasi ondoren, gaur egun Euskal Trenbideetako Langileak Mugarik Gabe programarekin Mozanbikera doa energia berriztagarrietako ezagutzak zabaltzera eta bertan laguntzera.



Alain Aranaz (Nabarniz, 1990) Energia eraginkortasuna eta eguzki energia termikoa Goi Mailako Lanbide Heziketa ikasi eta ENERTEK energia berriztagarrien enpresa bat sortu berri du, bertan biomasa, geometria eta energia berriztagarrien instalazioak egiten dituzte.

LANBIDE HEZIKETA

Matrikula data uztailaren 13tik 19ra

Erdi maila

- Beroa sortzeko instalazioak (iturgintza, eguzki instalazioak, gasa)
- Mantenimendu elektromekanikoa

Goi maila

- Administrazioa eta finantzak
- Automatizazioa eta robotika industrialak
- Mekatronika industrialak
- Fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioa
- Ekoizpen prozesuak eta kalitatea Elikagaien Industrian
- Efizientzia energetikoa eta eguzki energia termikoa
- Web Alikazioen Garapena (2.maila)



Markina Xemein
946 169 002
info@leartik.com
www.leartik.com